

SICUT COMIT COMIT & GRUPOS.

Guggenheim Bilbao Museoaren
jarduerak Euskadiko
ekonomian izandako eragina
2009. urtean


Sarrera

Guggenheim Bilbao Museoak 1998. urtean azterlan bat hasi zuen Euskal Autonomia Erkidegoaren, bertako turismo sektorearen eta, oro har, ekonomiaren eraldatzeari egin dion ekarpena zein den jakiteko; horretarako, urtero garatu eta aplikatu da eragin ekonomikoa neurtzeko metodologia jakin bat. Eredu horri jarraiki, Guggenheim Bilbao Museoa Fundazioaren jarduerak eskualdeko ekonomian duten eragina ikertzen da, hots, BPGa sortzen, enplegua mantentzen eta zerga-bilketa gehitzen nola laguntzen duen.

Eragin-eredua

Eragina neurtzeko erreferentziatzat hartu dugu 1998an ezarritako eredua, 2006an bi alderdi nagusitan eguneratu zena:

- Bisitarien gastu-profilak haien jatorriaren arabera gainbegiratu ditugu, gastu zuzenaren eragile eta aberastasun sortzaile nagusi baitira. Horretarako, urtean zehar 4.196 inkesta egin dizkiegu Museoaren bisitariari.
- Biderkatzaile sektorialak eguneratu ditugu: azkeneko input-output taulak argitaratu ondoren berriro kalkulatu ditugu. Hala, ekonomian esku hartzen duten sektoreen arteko loturak eguneratu ditugu, azken urteotan Euskadiko egitura ekonomikoa izan diren aldaketak islatuz.



Eragin-ereduaren emaitza nagusiak

2009. urtean Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak izandako eragin ekonomikoari buruzko azterlanaren ondorio nagusi gisa alderdi hauek nabarmendu behar dira.

2009an Museoaren jardunak Euskadin sortutako guztizko gastu zuzena **204.506.729** eurokoa izan zen, bisitari bakoitzeko 225,97 euroko batez besteko gastua adierazten duela. Gastu zuzenaren guztizkoa ondoko kontzeptu hauek batzean lortzen da:

- 176.356.655 euro, Museoaren instalazioetatik kanpo bisitarien egindako gastuei dagozkienak, egindako inkesten emaitza gisa ateratako gastu-profilaren arabera. Museoaren jardunaren garapenetik onura handien lortu duten sektoreak hauek izan dira:
 - Gastronomía: 80.346.137 euro jatetxe, taberna eta kafetegietan.
 - Erosketak: 25.425.173 euro denda eta komertzioetan.
 - Ostalua: 40.029.924 euro hotel, ostatu-etxe eta bestelakoetan.
 - Garraioa: 11.723.035 euro alokairu, gasolina, bidesari, txartel eta abarretan.
 - Aisia: 18.832.386 euro zinema, antzoki, beste museoetako bisitaldi eta abarretan.
- 28.150.074 euro Museoan eta honekin lotutako bestelako jardueretan (bisitariak, denda, jatetxea, Banakako Kideek eta Kide Korporatiboek egindako ekarpenak, ekitaldi bereziak antolatzen direnak, diru-laguntzak, eta abar) egindako gastuetan.

Beraz, eta efektu zuzenak, zeharkakoak eta eragindakoak kontuan hartuta, 2009. urtean Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak **185.576.062** euroko aberastasuna sortu dute BPGan, **25.273.604** euroko diru-sarrera gehigarriak Euskal Ogasun Publikoentzat, eta 3.695 enplegu mantentzen lagundu dute.

Ondoren, Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan izandako eragina agertzen da 1997ko urritik 2009ko abenduaren 31ra:

Euro	1997 urr.-abe.	1998	1999	2000	2001	2002
Eragina						
Gastu zuzenak	40.568.317	190.400.635	202.799.514	191.903.165	149.724.135	143.706.595
BPG sorkuntza	31.517.075	147.921.099	157.555.323	149.087.063	168.331.470	162.327.827
Enplegua (1)	832	3.906	4.161	3.937	4.415	4.265
Sarrerak Ogasuna	5.871.888	27.562.415	29.359.441	27.784.790	26.949.383	25.988.685

Euros	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Eragina						
Gastu zuzenak	153.745.225	163.711.085	165.835.281	233.621.942	242.986.389	231.788.989
BPG sorkuntza	173.089.191	184.046.738	186.197.551	211.633.296	220.240.289	210.072.873
Enplegua (1)	4.547	4.842	4.893	4.232	4.399	4.196
Sarrerak Ogasuna	27.711.580	29.465.882	29.810.227	28.822.339	29.994.526	28.609.825

Euros	2009	GUZTIRA
Eragina		
Gastu zuzenak	204.506.729	2.315.298.001
BPG sorkuntza	185.576.062	2.187.595.857
Enplegua (1)	3.695	4.286
Sarrerak Ogasuna	25.273.604	343.204.585

(1) Enpleguko zenbatekoek enplegua mantentzen egindako ekarpena adierazten dute, ez ordea lanpostu berrien sortzea.